

I Berdintasunerako Planaren aurkezpena.

Berdintasun Planaren diseinua Durangoko Udalak Elhuyar Aholkularitzarekin izandako hitzarmenaren emaitza da. Berdintasun Planaren diseinua egiteko parte-hartzean oinarritutako prozesu bat landu dugu eta prozesu horretan egindako lanarekin txostena osatu dugu:

- Diagnostikoa oinarritzat duen Durangoko Emakume eta Gizonen I. Berdintasunerako Planaren indarraldia egungo legegintzaldiarekin dago lotuta (2008-2011).

Planak gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizon eta emakumeen berdintasunerako IV. Plana ditu erreferentzia gisa. Arau hauek, alde batetik, berdintasunerako politikak eta baliabide estrategikoen ezarpena bultzatzen dituzte administrazioaren barruan, eta bestetik, herritarrentzako jarduketak emakumeen berehalako beharrei erantzun ahal izateko.

4/2005 Berdintasunerako Legea, zein EAEko IV. Berdintasunerako Planak erreferentziazko lege marko izateaz gain, balio izan dute udalaz gaineko erakundeekin koordinatuta jarduteko, helburuak, neurriak eta estrategiak finkatzeko esparru metodologiko gisa.

Durangoko Emakume eta Gizonen I. Berdintasun Plana prozesu parte-hartzaile baten bidez bideratua izan da. Horretarako, 9 lantalde osatu dira Durangoko populazioaren eragile adierazgarriekin: herritarrak, politikariak, Udaleko eta Erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetako teknikariak eta gizarte-eragileak. Guztira, 74 pertsonak hartu dute parte, 49 (%66) emakume eta 25 (%34) gizon. Guztiei, eskerrak eman behar dizkiegu egin dituzten ekarpenengatik.

Azkenik, Berdintasun sailak eta Udaleko ordezkari politikoek Berdintasun Plana adostu dute. Plan honek Udalaren eta Udalerriaren ezaugarri eta beharrei erantzuten diela uste dugu.

Durangoko Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasunerako Plana garatzen duen dokumentu hau hamar atal nagusitan egituratzen da. Lehenbizikoa sarrera agertzen da; ondoren, erabilitako metodologia, hirugarren atalean genero-berdintasunaren marko kontzeptuala; hurrengoan, zehazturiko neurrien euskarri den lege markoa aipatzen da; bosgarren puntuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko erabiltzen diren estrategiak azaltzen dira; hurrengo atalean, egitura eta kudeaketa; jarraian, burutu beharreko ebaluazioaren eta jarraipenaren eredia azaltzeko atala dator; eta azkenik, helburuak, ekintzak, estrategiak eta esleituriko erantzukizunak garatuko dira. Dokumentuaren amaieran erabilitako hizkera teknikoa ulertzeko lagungarria hiztegia eta dokumentuaren informazioa osatzeko beharrezko eranskinak daude.